

GAIA: Informazio publikoa eskuratzeko eskaera ezesteko ebazpena.

ASUNTO: Resolución de desestimación de solicitud de acceso a información pública.

AURREKARIAK

2023/03/07an informazio publikoa eskuratzeko eskabidea aurkeztu zen, eduki honekin:

“Bizkaiko Foru Aldunditik jasotako jakinarazpenaren erantzuna:

GAIA: Foru Aginduaren jakinarazpena. Zenb.: Foru Agindua, otsailaren 28koa.

Erakundearen izena:

IFZ:

Espediente zenbakia: 9/12/94/2022/00605.

Jakinarazpen horretan, LAUGARREN atalean, zehazten da autonomo gisa alta emanda egon naizela 22/06/02tik 23/01/26ra (239 alta egun). Hala ere, BOSGARREN atalaren arabera, autonomoen ordainketak 2022ko abendura arte bakarrik justifikatu dira (213 ordainketa-egun autonomo gisa).

Banku-laburpen eta ordainagiri bidez egiaztatzen dut 2023ko urtarrileko autonomoengatikoko kuota ordaindu dudala 23/01/31n, autonomoengatikoko ordainketaren jakinarazpenean azaltzen dena baino hilabete bat gehiago, eta, beraz, kontuan hartu beharko litzateke kopurua murrizteko orduan, eta munta hori 416,70 eurokoa izango litzateke (jakinarazpenean zehazten den 832,10 eurokoa izan beharrean).

Bizkaiko Foru Aldundiaren mezu honen erantzunaren ondoren eta minorizazio-kopurua berriz kalkulatu ondoren, ez badut erantzuten, horrela baieztatu egingo litzateke ados nagoela egiten zaidan proposamen berriarekin, eta 416,70 euroko itzulketa banku-transakziorik aurkeztu edo egin beharrik gabe egingo litzatekeela?”

ANTECEDENTES

Con fecha 07/03/2023 se ha presentado solicitud de acceso a información pública con el siguiente contenido:

“Respuesta a la notificación recibida de la Diputación Foral de Bizkaia:

ASUNTO: Notificación Orden Foral. Núm. Orden foral: de 28 de febrero.

Nombre de la entidad:

NIF:

Nº de expediente:9/12/94/2022/00605

En dicha notificación, en el apartado CUARTO se especifica que he estado de alta como autónoma desde el 02/06/22 al 26/01/23 (239 días de alta). Sin embargo, según el apartado QUINTO, justificado los pagos de autónomos solo hasta diciembre 2022 (213 días de pago como autónomos).

Acredito mediante extracto bancario y recibo, que he pagado la cuota de autónomos de enero de 2023 el 31/01/23, pago de autónomos un mes más de lo que se expone en la notificación, por lo que se debería de tener en cuenta a la hora de disminuir la cantidad, teniendo en proceder a la cantidad de 416,70 euros (en vez de 832,10 euros que especifica la notificación).

Si posterior a la respuesta de este mensaje de la Diputación Foral de Bizkaia y calculada nuevamente la cantidad de minorización no respondo, ¿confirmaría de esta manera que estoy de acuerdo con la nueva propuesta que se me hace, y el reintegro de 416,70 euros se llevaría a cabo sin yo tener que presentar o hacer ninguna transacción bancaria?”



Eskaera aztertu ondoren, egiaztatu da eskatutako informazioa ez dela informazio publikotzat hartzen Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren (aurrerantzean, Gardentasunari buruzko Foru Araua) 17.2 eta 18.1 artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako:

Gardentasunari buruzko Foru Arauaren 17.2 artikulua honela definitzen du “informazio publikoa”: informazio publikoa da foru arau honen aplikazio-eremuan sartutako erakundeek duten edozein eduki edo dokumentu, euskarria edozein dela ere, erakunde horiek beren eginkizunen barruan egin, aldatu edo eskuratu badituzte eduki edo dokumentuok

Beste alde batetik, Gardentasunari buruzko Foru Arau horren 18.1 artikulua aitortzen du pertsona guztiek dutela eskubidea “informazio publikoa” eskuratzeko, foru arau horretan eta gaia arautzen duen legeria orokorrean jasotakoarekin bat.

Aipatutako aginduen arabera, Gardentasunari buruzko Foru Arauak aitortzen eta arautzen du zuzentzen zaion erakundearen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, bai berak egin duelako edo bere eginkizunak betez lortu duelako, arauaren helburua jarduera publikoaren gardentasuna zabaltzea eta indartzea izanik, eta jarduera horri buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea arautzea eta bermatzea.

Egungo eskaeraren xedea kontuan hartuta, eskatzaileak ez du eskatzen eskaera aurkeztu zen unean zegoen informazio publikorik, haren legezko kontzeptuaren arabera. Administrazioak balorazio bat egin behar du aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta.

Una vez analizada la solicitud, se ha podido comprobar que la información solicitada no tiene la consideración de información pública a los efectos de lo establecido en los artículos 17.2 y 18.1 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia (en adelante, Norma Foral de Transparencia):

El artículo 17.2 de la Norma Foral de Transparencia define la “información pública” como cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral y que hayan sido elaborados, modificados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones.

Por su parte, el artículo 18.1 de la citada Norma Foral de Transparencia, reconoce el derecho de todas las personas a acceder a la “información pública” en los términos recogidos en dicha norma foral y en la legislación general que regula la materia.

En función de los preceptos mencionados, la Norma Foral de Transparencia reconoce y regula el derecho a acceder a la información pública que esté en posesión del organismo al que se dirige, bien porque el mismo la ha elaborado o bien porque la ha obtenido en el ejercicio de sus funciones, siendo el objetivo de la norma ampliar y reforzar la transparencia de la actividad pública, regular y garantizar el derecho de acceso a la información relativa a aquella actividad.

Tomando en consideración el objeto de la actual solicitud, la peticionaria no solicita información pública preexistente en el momento de la presentación de la solicitud según el concepto legal de la misma, sino que requiere que la Administración realice una valoración en base a la documentación que se



Horregatik, administrazio-prozedura batean interesdun den aldetik, jakinarazitako foru-agindua eman zuen administrazio-organora jo beharko du.

Azaldutakoa kontuan hartuta, Gardentasunari buruzko Foru Arauaren 17. artikuluan eta horrekin bat datozenetan xedatutakoarekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. ek informazio publikoa eskuratzeko egindako eskaera ezestea, haren xedea Gardentasunari buruzko Foru Arauaren aplikazio-eremutik kanpo geratzen baita.

Bigarrena. Ebazpen honen aurka erreklamazioa aurkeztu ahal izango zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordeari, hilabeteko epean, Gardentasunari buruzko Foru Arauaren 24.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, epea bi kasuetan ebazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

aporta. Por ello, en calidad de persona interesada de un procedimiento administrativo, deberá dirigirse al órgano administrativo que emitió la Orden Foral notificada.

En atención a lo expuesto, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 17 y concordantes de la Norma Foral de Transparencia,

RESUELVE

Primero. Desestimar la solicitud de acceso a información pública realizada por , en tanto que su objeto queda fuera del alcance del ámbito de aplicación de la Norma Foral de Transparencia.

Segundo. Contra la presente Resolución podrá interponerse reclamación ante la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un mes con arreglo a lo establecido en el artículo 24.5 de la Norma Foral de Transparencia o bien directamente recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en ambos casos a partir del día siguiente a su recepción.